

I. OrriBakaR

LITERATUR LEHIAKETAKO
LAN SARITUAK
(2014)

Elene Telletxea Yarzabal
Maddi Artola Sarasola
Aimar Aginaga Errasti
Endika Osa Urkizu
Ibai Olaziregi Landaburu
Sofia Vazquez Arena
Araitz Sarasua Zinkunegi
Martin Ruiz Egaña
Amaia Resende Eguiluz
Ilargi Zipitria Sinde

UDAL LIBURUTEGIA

Lezo, 2015



I. OrriBakaR literatur lehiaketako sari banaketa ekitaldia
(Lezoko udal liburutegia. 2014ko abenduak 12).

A maila, 6-7 urte

HERRIHANDI

Elene Telletxea Yarzabal

Erdi Aroan bazen urruti-urrutiko herri bat Herrihandi izenekoa. Beraien nahia sorginetaz urrun egotea zen. Egun baten sorgintxo bihurritxo bat zeruan zebilela bistak ikusten Erdi Aroko gizon batek garraxi egin zuen:

—Sorgina, sorgina!!! Zeruan sorgin bat dago!

Orduan ikaragarritzko sarea bota zuten zerura eta hantxe gelditu zen, harrapatuta. Gazteluko printzea gerturatu zitzaion eta horrela esan zion:

—Ni ez naiz sorginen beldur! -eta saretik atera zuen.

Herria erakutsi zion eta herritar batekin topa egin zuten eta horrela esan zion dardar egiten zuen bitartean:

—Sorgina al zara?

Printzeak lasai egoteko esan zion. Gaztelura joan eta erregeak sorgina ikusi zuenean garraxi egin zuen:

—EZ DUT SORGINIK IKUSI NAHI ERRESUMA HONETAN!!!

Printzeak baietz esan zion eta bere zaldi kuttuna hartu eta sorginarekin joan zen. Printzeak lo hartu zuen eta sorgintxoak zuhaitz baten atzera joan eta bere erratzarekin alde egin zuen. Printzea bakarrik geratu zen.

A maila, 6-7 urte

ZABARRE ETA OREITZENE

Maddi Artola Sarasola

1914ean gertatu zen, Jaizkibel mendian. Jaizkibel mendian Zabarre eta Oreitzene jentilak bizi ziren kobazulo batean. Arropak egiten zituzten. Herritarrek eskatzen zieten egiten zuten eta ordainetan zerbait ematen zieten. Baina herritarrei eta erraldoiei gehien gustatzen zitzaiena herriko festak ziren. Urtero-urtero festak zirenean herrira joaten ziren.

Baina egun batean, erraldoiak ez ziren azaldu eta ordu bat pasa ondoren herritarrek beraien bizilekura joatea pentsatu zuten. Han beraien jantziak besterik etzeuden, eta pentsatu zuten han zeuden egur eta tela puskekin beraien eredia egitea. Urtero-urtero norbait erraldoien barruan sartu eta beraien omenez herriko plazan dantza eta dantza ibiltzen da.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila herriko plazan.

B maila, 8-9 urte

ADREILU LAPURRA

Aimar Aginaga Errasti

Herrixka txiki batean bazen Ander izeneko mutiko bat, 12 urte zituena. Gau batean herri guztia lo zegoenean etxe batetik adreilu bat atera zen. Gero beste etxe batetik beste bat eta hurrengo egunean etxe bati 3 adreilu falta zitzaizkion, beste bati 5, besteari 2 eta horrela denei. Herritarrak kejan zeuden. Ander harrituta zegoen eta esan zuen:

—Hau konpondu beharra dago.

Gau guztia pentsatzen aritu zen eta bat-batean ikusi zuen adreilu bat poliki-poliki ateratzen ari zela eta ohetik altxa eta izaki txiki-txiki bat ikusi zuen. Ilea zuria zeukan, argia egiten zuena, eta mendirantz abiatu zen. Izaki txikia mendi puntara iritsi zenean, izakia lotan geratu zen eta esnatu zenean Ander ikusi zuen.

—Nor zera?

Ander herrira joan zen herrikoei ez zela gaiztoa esatera. Anderrek herritarrei berari jarraitzeko esan zien eta herritarrek mendi puntaraino jarraitu zioten. Gizon txikia ikusi zuten eta ondoan adreiluz betetako gailur bat. Gizon batek esan zion ea zertarako behar zituen hainbeste adreilu eta gizon txikiak erantzun zion:

—Ni Sori planetakoa naiz eta nire espaziontzia laino batean dago. Uste nuen iritsiko nintzela baina ez dut asmatu.

Anderrek esan zuen lagundu egingo ziotela lainoraino iristen eta asko kostata baina azkenean iritsi ziren. Ospatzeko festa bat antolatu zuten, gizon txikia lainora igo zen eta espaziontzia hartu eta bere planetara joan zen. Herritarrek pena hartu zuten gizontxoa joan egin zelako.

B maila, 8-9 urte

ESKU TREBEAK

Endika Osa Urkizu

Eskultore batek bere eskulanak egiteko edozein gauza hartzen zuen: paperak, kartoiak, kableak, egurrak edo beste gauza asko. Orduan bere logela gauzaz beteta zegoen.

Egun batean, emaztea bere gelara joan zen eta gauza guztiak zakarrontzira bota zituen.

Kasualitatez egun hartan, herriko plazan kartel bat ipinita zegoen. Kartelean eskulan txapelketa bat zegoela jartzen zuen. Orduan korrika joan zen etxera bere gauzen bila eta zerbait egiteko.


Bere gela txukun-txukun zegoen. Eta bere materiala ez zegoen.

Korrika eta urduri kalera joan zen. Errefusaren zakarrontzian gauza batzuk zeuden, poltsa horian eta urdinean besteak zeuden. Orduan bere eskulan berezia egin zuen. Oso-osoa berezia zen.

Txapelketara eraman zuen eta lehenengo gelditu zen. Txapelketa irabazi zuen.

TXISTE-LABURRAK

Ibai Olaziregi Landaburu



D maila, 10-11 urte

MIRARI ETA ELURREN ABENTURAK

Sofia Vazquez Arena

Bazen behin Mirari deitzen zen neska bat. Mirariri zaldiz ibiltzea eta mendira joatea gustatzen zitzaion baina ez zeukan zaldirik.

Egun batean bere bizikleta hartu eta mendira joan zen. Pixka bat ibili eta gero, gauza harrigarri bat ikusi zuen. Zaldi bat. Zaldia txikia zen, txuri kolorekoa eta bat-batean korrika joan zen Mirarirengana. Mirarik bere ilea ukitu zuen. Gero zaldiaren bizkarrezurra ikusi zuen eta konturatu zen zauria zeukala. Horregatik zaldia babesteko kobazulo batera eramatea erabaki zuen. Ondoren belarra eraman zion. Gero ura hartu zuen ibaitik. (Ibaia sekretua zen, bakarrik Mirarik zekien non zegoen. Oso polita zen eta ur-jauziak zeuden.) Ura hartzean berriro joan zen zaldiarengana, ura bere zaurian jarri zuen, gero hosto bat uraren gainean eta azkenik bere bufanda hostoa mantentzeko. Bitartean izen bat pentsatu zuen: Elur.

Zazpi hilabete pasa eta gero Elur eta Mirari lagun hoberenak egin ziren. Egunero, eskola eta gero mendira joaten zen Elurrekin jolasteko eta zaintzeko.

Egun batean Mirarik Elurrenkobazuloan eskutitz bat aurkitu zuen. Bertan hauxe jartzen zuen: "*zuk gure zaldia daukazu, gaur eguzkia sartu baino lehen, zaldia aurkitu duzun lekuan itzarongo dizut niri bueltatzeko*".

Mirari negarrez hasi zen eta Elurri besarkada handi bat eman zion. Ordua iritsi zen eta Mirari hor zegoen Elurrekin eta bat-batean doinu bat entzun zen. Eta doinua lasaitzen hasi zenean ikusi zuen mutil bat eta mutilak esan zuen:

—Zaldi hori nirea da eta Hodi deitzen da.

Mirari harrিতa eta triste geratu zen ikusi zuenarekin, eta mutilak esan zuen:

—Nahi baduzu elkarrekin zainduko dugu. Ni Mikel deitzen naiz, eta zu nola deitzen zara?

Mirarik esan zuen:

—Ni Mirari.

Eta horrela lagunak izan ziren, edo gauza bat gehiago.

E maila, 12-13 urte

GEHIAGO EZ

Araitz Sarasua Zinkunegi

Ezin dut gehiago. Zergatik niri? Japoniarra naizelako? Itsusia naizelako? Potolo nagoelako? Ez dut ezer ulertzen. Lehenengo aldian uler nezakeen, kurtso hasiera zen, eta grazia egiteko besterik ez zela uste nuen, horregatik, inori ez kontatzea erabaki nuen. Hori izan zen nire lehenengo akatsa. Orain, beranduegi da norbaiti kontatzeko. Kurtso erdian gaude, eta oraindik egiten didate. Sei izaten dira, ni baino indartsuagoak, luzeagoak eta bi urte helduagoak. Bakarrik nagoen momentuetan etortzen dira, ni ihesean saiatzen naiz, baina, inguratu egiten naute, orduan, badakit zer etorriko zaidan, hurrengo hamar-hamabost minutuetan. Hitz itsusiak, mina, eta beraien barreak. Ezin naiz defendatu sei direlako eta ezin diot inori kontatu, ez didatelako uzten. Ez daukat irtenbiderik. Beno, bat, baina ez dut egin nahi, badagoelako maite nauen jendea. Ama ere triste eta bizitzeko gogorik gabe nagoela ohartu da.

Gaur ere egin didate, eta inoiz baino okerrago sentitu naiz, behar bada, lurrera bota nautelako eta ostikadaren batek ere harrapatu nauelako. 13 urte ditut eta gaztea naiz, bizitzeko denbora luzea dut, baina, horrela ez, horrela ezin dut. Ikastolatik irteten naizenean, kalean beraiekin ez topatzeko, korrika joaten naiz etxera. Eta berdin etxetik ikastolara. Halere, ez dakit nola, beti topatzen naute bakarrik nagoen momentuetan. Etxera iritsi naizenean, kaskoak jarri eta ohean sartu naiz eta arratsaldea negarrez pasa dut.

Erabaki bat hartu dut.

Gauean, amari zakarra botatzera joango naizela esan, eta itsas ertzera joan naiz. Hemen, lasai-lasai dago dena. Begiak itxi eta entzuten dudana bakarria, itsaso bare-barea da. Ilargia borobil-borobila dago. Nire amaierarako eszena ederra iruditzen zait. Nik beti pentsatu izan dut, bere buruaz beste egiten duen pertsona, alde batetik, ez dela ausarta, ez diolako indarrarekin arazoari aurre egiten. Baina beste aldetik, oso ausarta dela amildegi batetik bere gorputza botatzeko. Nire kasuan, itsasoko harkaitzetan behera. Mutilak, poliki-poliki, pertsona bat hil dutela jakitea nahi dut. Baina beste aldetik, errudun ez sentitzeko eskatu nahi diet, hurrengo baterako ikasteko baizik. Irtsi da momentua. Barandailara igo eta nire kantarik gustukoena kantatzen hasi naiz, haize goxo eta lasai honekin. Orain bakean sentitzen naiz. Sentitzen nituen sentimendu txar horiek, haizearekin uxatu balira bezala. Orain, pozik nago. Hanka bat aurreratu eta erortzen nabaritzen dut nire gorputza.

E maila, 12-13 urte

LEZO 1936

Martin Ruiz Egaña

Iraileko egun hartan, ohikoa zen bezala, sei urteko neskato bat kalera atera zen lagunekin jolastera. Dena normala zela bazirudien ere, berak zerbait arraroa ikusten zuen helduengan, kezkatuta zeuden, ahopean hitz egiten zuten... Berak lagunekin jolasean, pilotan..., eta gurasoei baratzean laguntzen jarraitu zuen.

Iluntzean, etxe ondoko frontoian pilotan jolasten ari zenean, amak afaltzera joateko deitu zion. Baietz erantzun zion amari baina, beti bezala, bost minutu beranduago joan zen. Afaldu ondoren ohera joan zen. Ohean zegoela soinu arraro batzuk entzun zituen, baina bere etxea zuhaitzez inguratuta zegoenez eta haizea zebilenean hots arraroak entzuten zirenez, ez zion garrantzi handirik eman.

Hortik gutxira hots arraro horiek berriro entzun zituen eta jakinminak bultzatuta altxatu eta leihotik begiratu zuen. Gau ilun horren erdian Gaintxurizketa aldera begiratu zuen eta zerua gorri-gorri ikusi zuen. Egunsentia zela pentsatu zuen baina ez zen posible, oheratu berria zen eta.

Sukaldera joan eta etxeakoak kezkatuta eta aztoratuta zeudela ikusi zuen. Ohera bidali zuten berriro. Hara zihoala hiru hitz entzun zituen: *gerra, bonbardeaketa* eta *Irun*.

Berak ez zuen ezer ulertzen, ez zekien ezer, baina azken egunotan helduei entzundako hitzak burura etorri zitzaizkion, "*gerra hemen dago*"...

Neskatxa hura nire amona zen eta hark kontatu zidan istorio hau. Gaur egun urte asko ditu, baina oso ondo gogoratzen du gaua egun bihurtu zen egun hura.

F maila, 14-15 urte

AURRERA EGITEKO GARAIA DA

Amaia Resende Eguiluz

Zenbatetan igo naiz mendi tontorrera, eta zenbatetan erori naiz goitik beheraino? Kontaezinak dira erori naizen aldiak, kontaezinak berriro altxa eta saiatu naizenak. Erori naizen bakoitzean, irribarrea, indarra, adorea eta gogoa galduz bihurtu dut neure burua pentsamendu hotz eta tristeak arrastaka daramatzen zaku zahar honetan. Behin dena alai eta koloretsu ikusi izan zuten begiak, dagoeneko goibel daude, errealtate are goibelago honen eta errutina ilun honen ikuspegiaz kutsatu dira.

Zeinen polita zen egunero esnatzea, egun oso bat aurretik edukitzea... nahi nuena izan nintzatekeen, ez zegoen mugarik, ez zegoen debekurik. Zer gertatu ote zaio neskatala txiki, lotsati, ahul eta indartsu aldi berean, gogotsu baina inozente horri? Non galdu ote da?

Sarritan pentsatzen dut aldatu egin naizela, dena aldatu dela, nire inguruan eta nire inguruko inguruan. Urteak pasa dira eta ni zahartu naizen bezala, mundua ere zahartu da eta badirudi elkartasuna, laguntzeko grina eta eskuzabaltasuna (behartuta) ere zahartu eta atzean geratu direla. Garai gogorak dira bizitzen ari garenak eta asko gustuko dudana idazle ezezagun batek duela gutxi idatzi zuen bezala, hauek "oinarrizkoa edukitzea pribilegiatuen gauza den garaia" dira. Baina non geratu dira lehen zegoen elkartasuna, kemena eta aurrera egiteko gogoa?

Izan nintzen umetxoarekin bat, atzean geratu dira. Baina ez nago prest horrelakorik gertatzeko, ezer gutxi egin badezaket, sinets nazazu egingo dudala, bada garaia altxatzeko, hautsa astintzeko eta geure buru kopetilunetan aldaketa emateko. Ezin dugu amore eman, ezin dugu etsi. Mila bider erori banaiz ere, hezur eta muskulu guztiak zartatu eta desegin baditut ere, egon zaitezte ziur aurrera egiten saiatuko naizela.

Egin dut aldaketa, etsipenez bizi beharrean, burua altxa, hainbeste mintzen nauen amorrua gorde, eta benetan merezi duten gauzengatik borrokatuko dut. Tinta ikusezinarekin margotu dut gaurkoan nire azal urratuan, behingoz nire odol guztian zabal dadin beharrezkoa den indar mezua. Aurrera egingo dut, zenbatetan eroriko naizen pentsatu gabe, amildegian behera eroriko banaiz, kotoizko armadura egingo dut, kolpekatuko banaute altzairuzko trajea jantziko dut; beti ere, aurrera egingez.

EZ NUEN EZER, DENA ONARTU NUEN ARTE

Ilargi Zipitria Sinde

Banuen umorerik
banuen alaitasunik
banuen usterik
banuen argudiorik
banuen bihotzik
banuen denetik
dena galdu nuen arte

Auskalo zergatik, non, noiz edo nola gertatua zen. Ez nuen galdera haietarako erantzunik. Nekien gauza bakarra honakoa zen: irria aurpegitik erortzearekin batera, zorientasuna galdua nuela.

“Ahaztu dezagun guztia eta segi dezagun aurrera”. Hura nuen pentsamendu nagusi, hura bizitzeko euskarri. Banekien ez zela nahikoa, baina ez nuen sinistu nahi, ez nintzen hura onartzeko gai. Denborak aurrera egitea besterik ez nuen behar. Munduarekin batera ni neu ere lasaituko nintzelakoan nengoen, berriro lasai arnasteko eguna iritsiko zen itxaropena nuen.

Baina minutuak, orduak, egunak, eta asteak igaro arren, nire barneak berdin jarraitzen zuen. Zerbaitek ez zuen nik aurrera egiterik nahi. Noizbait, nonbait, nolabait, aurrera egin ezinean gelditua nintzen. Ihes egingo nukeen edonora, guztia emango nukeen horretarako gustora, baina kate ikusezinez lotuta nengoen. Barrote ikusezineko ziega batean nengoen, irudimenezko soldaduz babestutako kartzela batean, eta pentsamendu horiek buruan, zorigaitzetik aldentzen ninduen gauza bakarrak eraman ninduen, loak hartu ninduen.

Geroago, argi batek iratzarri ninduen. Begiak ireki eta ingurura begiratu nuen, gelako argitasunean zerbait ikusteko ahaleginak eginez. Segundo batzuk igaro arte ez nintzen non nengoen jakiteko gai izan, baina ondoren ohartu nintzen neure logelan nengoela, bart oheratutako ohe berean.

Egunero bezala, aitak esnatu ninduen, institutura joateko ordua iritsia zela esanez, goxo-goxo. Ia konturatu gabe egiten nuen errutina errepikatu nuen egun hartan ere. Komunera joan, jantzi, gosalduek, motxila hartu eta etxetik atera. Ez zen egun berezia, beste edozein bezain aspergarria baizik. Ez nintzen ezinegon haren zergatia asmatzeko gai. Egia da hobeto sentitzen nintzela, pixkanaka nire ezpainak zabaldu eta irribarre antzeko bat marrazten ari zirela sentitzen nuela, eta azkenean egoera onartzeari bota nion errua, zerbait ez zegoela ondo eta konponbidea behar zela ondorioztatzeari. Dena den, banekien nire bizitza ez zela lehengoa izango, arazoaren ondorengoa baizik, guztia askatu dugula dirudien arren, oroitzapena betiko nonbait ezkutatu baita.

Ez nuen indarrik
ez alaitasunik
ez malkorik
ez ideiarik
ez hotzik
ez berorik
ez nuen ezer
dena onartu nuen arte.

2015eko maiatza

Lezoko udal liburutegia

Kale Nagusia, 35

20100 Lezo

Telefonoa: 943 51 95 92

Elektroposta: liburutegia@lezo.eus

Webgunea: www.lezo.eus/liburutegia

Bloga: liburutegiak.blog.euskadi.net/lezo/